

KUTXABANKEN INGURUMEN-POLITIKA

Hedapena eta ekintza-ildoak

Agiri honetan Kutxabanken ezarritako printzipioak eta ekintza-ardatzak zehazten dira, bai eta garapen jasangarriarekin eta ingurumenarekin daukan konpromisoa bermatzeko hedapena eta ekintza-ildoak ere.

Kutxabanken Ingurumen-politika ondoko printzipioetan oinarritzen da:

1. Arlo honetako legeria eta araudia zein garapen jasangarri eta ingurumen-arloan bere borondatez bere egin dituen konpromisoak zorrotz betetzea.

- *Horren barruan daude gure jarduera eta lan-zentroei ezarri ahal zaizkion nazioarteko, estatuko, erkidegoko eta tokiko araudiak, bai eta Nazio Batuen Munduko Itunaren printzipioak ere (Global Compact).*

2. Ingurua babesteko eta kutsadura eta ingurumenaren degradazioa prebenitzeko jarrera proaktiboa hartzea.

- *Ingurumen-arloko irizpideak aintzat hartuko ditugu negozio, merkataritza eta euskarri-eragiketetan, eta ingurumen-arloko arriskuak kontuan hartuko ditugu arriskuak kudeatzeko prozesuetan.*
- *Natur baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko praktikak ezarriko ditugu, eta gure jarduerari eusteko eragiketetan birziklapena eta hondakinen murrizketa bultzatuko ditugu.*
- *Prestakuntza eta sensibilizatzearen bidez langileak parte-hartze aktiboa izatera bultzatuko ditugu, eta praktika arduratsuak sustatuko ditugu.*
- *Hornitzaile eta azpikontratugileekin ditugun harremanetan ingurumen-arloko arau eta irizpideak sartuko ditugu.*
- *Gure jarduera garatzen dugun lurraldean, ingurumenaren alde daukagun kontzientzia jendarteratuko dugu.*

3. Ingurumen-arloko jokabidearen etengabeko hobekuntza.

- *Gure ingurumen-arloko jarduna hobetzeko helburu eta helmugak ezarriko ditugu.*
- *Gure instalazio eta lan-metodoak eguneratuko ditugu, eta ingurumenaren antolamendurako ematen diren aurrerapenak baliatuko ditugu.*
- *Ingurumena babesten duten produktu eta zerbitzu berriak garatuko ditugu.*
- *Ezarritako jardunbideak gure ingurumen-arloko helburuetara egokitzen diren egiaztatze azterketak egingo ditugu urtero.*

Ingurumen-politika honek hiru ardatz ditu:

1. Gure jarduerak ingurumenean daukan eragina pixkanaka arintzeko, kontsumo eta kudeaketa iraunkorreko praktikak ezartzea.
 - *Kontsumoak arintzeko, erosketak berdeak egiteko edo hondakinak kudeatzeko neurriak ezarriko ditugu.*
 - *Kutxabanken lan egiten duten pertsonak ingurumen-arloko praktika arduratsuetan inplikaraziko ditugu.*

2. Ingurumenaren babesarekin loturiko finantza-produktu eta zerbitzuak sortu eta merkaturatzea, eta helburu hori bera duten proiektuak finantzatzea.
 - *Ingurumena hobetzea helburu duten jarduerekin loturiko aurrezki eta kreditu-produktuak jarriko ditugu gure bezeroen eskura.*
 - *Basoen babesaren, energia berriztagarrien edo energia-errentagarritasunaren inguruko proiektuak bultzatuko ditugu.*

3. Natur baliabideak zaindu eta babesteko beharra jendarteratzea.
 - *Gure kutxa akziodunen Gizarte Ekintzen bidez, jendartearen ingurumen-arloko heziketan edo sentsibilizazioan eragina daukaten programak bultzatuko ditugu, zuzenean ala zeharka.*

Politika honen ondorioz martxan jarriko diren ekimen eta jardueren bidez, gure inguruneko pertsona eta talde guztiekin (akziodun, langile, bezero, hornitzaile, herri administrazio eta gobernu kanpoko erakundeekin) elkar hartuta, gure gizartearen Garapen Iraunkorrean aurrera egiteko eta hura gauzatzeko konpromisoa agerian utzi nahi du **Kutxabankek**.